



iparraldea bertan

16. edizioa



2017ko 
martxoak

9 • 16 • 23 • 30

Martxoak

Osteguna
19:30etan

9

Kontzertua Peio Ospital

Peio Ospital aspaldiko ezaguna dugu, euskal kulturaren pizkundearen urteak bizi ukan ditu Pantxoa Carrère kantari eta musikariarekin, 40 bat urtez kantari ibiliz Euskal Herri osoan gaindi.

Orain, bide berri eta pertsonalagoak landu nahi ditu eta eskainiko duen kontzertu honetan, «Arnasa, hatsa, bizia» deitu bere azken diska aurkeztuko du. Berak dionez, kantuek norberaren egunerokotasunaren isla eta ospakizuna aldarrikatzen dituzte, eguneroko bizitza iruten duten poz, pena, nahigabe, gozamen, etsipen eta itxaropenen isla, egunerokotasun konpartitua edo partekatua.

Lan hau bideratzeko, laguntzaile eta idazle paregabeak ukan ditu, hala nola Andoni Salamero Alberdi, Itxaro Borda, Joxe Arregi, Martine Larroque, eta musikarentzat Mixel Ducau eta Paul Smet flandriarra.

Martxoak

Osteguna
19:30etan

16

Irakurketa musikatua « Etxea eta etxeakoak »

Hizlaria:

DANIEL
LANDART

Zatien irakurleak:

KATTALIN
SALLABERRY
PANTXOA
ETCHEGOIN

Bertsoen kantaria
& musikaria:

PANTXOA
CARRÈRE

Ekitaldi hau *Etxea eta etxeakoak euskal literaturan* Daniel Landartek osatu liburuan oinarritzen da. Aukeratu dituen idazleek aipatzen dituzte beren baserriak edo eraiki dituzten etxeak, gogoratzen etxearen zorionak, beldurrak eta kezak, beste batzuk fabula bidez edo metaforak erabiliz ari dira.

Idazleak Euskal Herri osokoak dira baina leku garrantzitsua emana zaie Iparraldekoiei: Manex Erdozaintzi-Etxart, Eñaut Etxamendi, Iratzeder, Piarres Larzabal eta Xalbador besteak beste. Hegoaldekoen artean aldiz aurkitzen ditugu: Xabier Amuriza, Joxan Artze, Arantxa Urretabizkaia, Lazkao Txiki, Gabriel Aresti etab.

Gai ukigarria, gai minbera, gai zabala, gai betierekoa: **Etxea eta etxeakoak!**

Martxoak
Osteguna
19:30etan **23**

Maialen kontzertuan

Maialen kantaria Euskal Herriko taula gainetan dabil zonbait urte hauetan, bere karisma eta kantatzeko kemena eskainiz publiko gero eta zabalagoari.

Musikari talde berri baten konplizitatearekin (Pat Tétévuide, Iban Larrebourg, Raphaél Ferreira) ibilbide eder honek bideratu du « Biluzik » deitu azken diskaren argitaratzea. Maialenen biziak, iraganak, bere ingurumenak, hunkitzen duten egoerek, bere nortasunak dituzte iradokitzen lan horretan agertzen diren kantu bereziek.

Pop-rock Blues kutsuarekin egin diska horretan, Maialenek ditu idazten eta konposatzen pieza gehienak. Artistak bereziki estimatzen ditu ere Itxaro Borda eta Jean-Louis Errotabeheren lumak.

Gaur egun, bere bide artistikoa zabalduz doa kontzertu eta proiektu desberdinetan (Hego eta Ipar Euskal Herrian, Bretanian,artzelonan, Parisen, Quebecen, Argentinan, Hungarian...).

Martxoak
Osteguna
19:30etan **30**

Filma dokumentala « Haien gaztaroan, iragana agerian »

Egilea:
ELSA
OLIARJ-INÈS

Nola egiten da egoiteko betidanik bizi izan den lekuan? Nola jakin hemen dugula bizi nahi? Elsa, Atharratzeko filma egile gaztea 18 urteetan Euskal Herritik joan zen. Bere haurtzaroko lagunak aldiz Xiberoan bertan egon ziren. Hiritik urrun, amalurretik hurbil... sorterrira itzultzen da bere adineko gazteak elkarrizketatu eta filmatzeko. Saiatzen da ulertzen zerk atxikitzen dituen hain sendoki herriari, kulturari edo familiari.

Herrian egoitea: hautu bat ote da ala berez doan eginkizuna?

Filmaren ondotik, Aldudarrak-Bideo lantegiko Tximun Carrère zuzendaria hor izanen da filmari buruzko xehetasun batzuren emateko.



KM



kulturunea

Urdaneta kalea 9
20006 Donostia
Tel.: 943 112 893
kmk.gipuzkoakultura.eus
programazioa@gipuzkoa.eus

